



## TELAPREVIR (INCIVO®)

**Dosia:** 3 kapsula gosariarekin eta 3 kapsula afariarekin.

**Data:**

**Telaprebirra** birusen kontrako medikamentu bat da.  $\alpha$  interferonarekin eta erribabirinarekin konbinatuta erabiltzen da, **C hepatitisaren** birusak eragindako infekzioa tratatzeko.

### TELAPREBIRRAREN ERABILERA EGOKIA

Har ezazu agindutako dosia ahotik, urarekin eta **otorduetan, gosariarekin eta afariarekin**, 12 orduan behin, gutxi gorabehera, medikuak agindu bezala.

Telaprebir, alfa peginterferon eta erribabirina bidezko tratamendu bateratua **12 astekoa** izaten da (3 hilabete). Hortik aurrera, peginterferona eta erribabirina bakarrik hartu behar dira, medikuak adierazitakoaren arabera (lortutako emaitzen arabera).

Dosiren bat ahaztu baduzu, eta 6 ordu baino gutxiago igaro badira, hartu ahalik eta lasterren; bestalde, sei ordu baino gehiago pasatu badira, itxaron hurrengo hartualdira arte. **Ez bikoiztu dosiak.**

**Kontserbazioa:** gorde medikamentua ontzi itxi batean, giro-tenperaturan, eta bero-iturrietatik, hezetasunetik eta zuzeneko argitik babestuta.

### TELAPREBIRRA HARTZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKOAK:

Jakinarazi zure medikuari edo farmazeutikoari zer botika hartzen ari zaren, baita errezeta medikorik gabekoak ere.

Oso garrantzitsua da dagozkizun kontsulta medikoetara joatea eta tratamendua behar bezala egitea. Tratamenduan zehar, odol-analisiak egingo dizkizugu aldian behin.

Ez erabili medikamentu hau telaprebirrak alergia-erreakzioren bat eragin badizu, haurdun bazaude edo zure bikotekidea haurdun badago. Ez da gomendatzen medikamentu hori hauexekin konbinatzea: alfuzosina, zisaprida, aho bidezko midazolama, pimozida, errifanpizina, sildenafil, santio belarra, taldalafila, triazolama, kolesterola jaisteko botika batzuk (besteak beste, lobastatina, simbastatina...) edo ergotoxinatik eratorritako medikamentu batzuk (besteak beste, dihidroergotamina, ergonobina, ergotamina, metilergonobina...).

Medikamentu honek ez du eragozten zuk beste inori C hepatitis kutsatzea. Jarraitu infekzio hau ez kutsarazteko medikuak emandako jarraibideei.

**Dosis:** 3 cápsulas con el desayuno y 3 cápsulas con la cena.

**Fecha:**

**Telaprevir** es un medicamento antivírico. Se utiliza en combinación con Interferon  $\alpha$  y ribavirina para el tratamiento de la infección por el virus de la **Hepatitis C**.

### USO ADECUADO DE TELAPREVIR

Tome la dosis prescrita por vía oral, con agua y **durante las comidas**, con el **desayuno y la cena**, aproximadamente cada 12 horas, tal y como le ha indicado su médico.

El tratamiento conjunto de telaprevir, peginterferon alta y ribavirina se prolongará durante **12 semanas** (3 meses). A partir de entonces se administrará únicamente peginterferon y ribavirina según le indique su médico (en función de los resultados obtenidos).

Si olvida alguna dosis, y han pasado menos de 6 horas tómela tan pronto como le sea posible, pero si han pasado más de seis horas espere hasta la próxima toma según la hora prevista. **No duplique la dosis.**

**Conservación:** guarde el medicamento en un recipiente cerrado a temperatura ambiente, alejado del calor, la humedad y la luz directa.

### PRECAUCIONES DURANTE EL USO DE TELAPREVIR

Comunique a su médico o farmacéutico todos los medicamentos que está tomando, **incluso los que no requieran receta médica.**

Es muy importante que acuda a las visitas médicas regularmente y que **cumpla adecuadamente el tratamiento.** Durante el mismo, se le practicarán regularmente análisis sanguíneos.

No use este medicamento si ha tenido una reacción alérgica a telaprevir, si está embarazada o si su compañera está embarazada. No se recomienda usar este medicamento en combinación con los siguientes medicamentos: alfuzosina cisaprida, midazolam oral, pimozida, rifampicina, sildenafil, hierba de San Juan, tadalafilo, triazolam, ciertos medicamentos para bajar el colesterol (como lovastatina, simvastatina...), o medicamentos derivados de la ergotoxina (como dihidroergotamina, ergonovina, ergotamina, metilergonovina...).

Este medicamento no va a prevenir que usted contagie a otros con hepatitis C. Siga las instrucciones de su médico sobre cómo prevenir el contagio de esta infección.

**TELAPREBIRRAK IZAN DITZAKEEN ALBO-  
ONDORIOAK**

Telaprebir bidezko tratamendua egitean, baliteke albo-ondorio hauetako batzuk sentitzea: nekea, goragalea, beherakoa, gonbitoak, odoluzkiak, azkura, exantema.

Medikamentu honek erreakzio larriak eragin ditzake larruazalean. Honelakorik agertuz gero, jakinarazi berehala medikuari: aldaketaren bat larruazalean (babak ateratzea; azala joatea); sukarra, eztula edo konjuntibitisa; aurpegia puztea; ezohiko ubelduak; azala zurbil; ezohiko odoljariora; arnasteko zailtasunak; edo nekatuta edo ahul sentitzen bazara.

Hurrengo kontsultan, ahaztu gabe jakinarazi medikuari edo farmazeutikoari nabaritu dituzun aldaketa guztiak.

**NOLA LORTU INCIVO®**

Incivo® (telaprebirra) ospitalean ematen den medikamentu bat da: hilean behin emango dizute ospitaleko Farmaziako Zerbitzuan. Orduetgia: 9:00 - 14:00, astelehenetik ostiralera.

Inoiz, hileko dosia hartzera joaterik ez baduzu, jakinaraz iezaiozu artatzen zaituen farmazialariari.

**POSIBLES EFECTOS SECUNDARIOS DE TELAPREVIR**

Durante el tratamiento con telaprevir usted puede sentir algunos de estos efectos: cansancio, náuseas, diarrea, vómitos, hemorroides, picor, exantema.

Este medicamento puede causar reacciones graves en la piel. Infórmele al médico de inmediato si usted nota cualquier cambio en su piel, ampollas, despellejamiento, fiebre, tos, conjuntivitis, inflamación en la cara, moretones inusuales, piel pálida, sangrado inusual, dificultad para respirar o se siente cansado o débil.

En la siguiente visita no olvide comentar con su médico o farmacéutico cualquier cambio que usted observe.

**COMO CONSEGUIR INCIVO®**

Incivo® (telaprevir) es un medicamento de dispensación hospitalaria, por lo que le será suministrado mensualmente por el Servicio de Farmacia del Hospital. El horario de dispensación es de 9 a 14 horas de lunes a viernes.

Si excepcionalmente, usted sabe que no podrá acudir a buscar su dosis mensual coménteselo al farmacéutico que le atiende.

**Farmaziako Zerbitzua**  
Debagoieneko ESI  
(☎943035306)

**Servicio de Farmacia**  
OSI Debagoiena  
(☎☐943035306)